# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

HERRIZAINGO-SAILA

865

Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Ertzaintzaren Araudia, Segurantza-Batzordeak 1982.eko Ekainaren 15ean egindako Bilkuran onartutakoa.

## EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA -ELKARTEKO ERTZAINTZAREN ARAUDIA

### AINTZIN-IDAZPURUA

### DEONTOLOJIAZKO ARAU-BILDUMA

*Lehenengo Atala*

Autonomia-Elkarteko Ertzainzako kideak Konstituzioari, Autonomia-Estatutoari, Erresumaren bere aginte-eremurako orotariko legeei eta Autonomia-Elkartearen berarizkoei men egitera behartuta daude, eta bai herritar guztiek dituzten orotariko egitekoak ereduzko eran betetzera ere.

*2garren Atala*

Eskubide eta iareipideak askatasunez egiteratzea eta Konstituzioak, Estatutoak eta gainontzeko lege eta araupideek agintzen dutenaren arauera herribakea eta segurantza bermatzea dute bere funtsezko egitekoa Ertzainek.

*3garren Atala*

Legeak jartzen dizkien egitekoak betetzea dagokie Ertzain guztiei, bere herrikideak eta gizartea indarkeriatik, jabetasunarekiko erasoetatik eta Legeak zehazten dituen beste ekintza kaltegarrietatik babestuz. Epailaritza-Ertzain direnezko ihardunean, eta Euskal Herriko Autonomia-Estatutoaren 36garren Atalak dioenaren arauera, Epai-Ardulararitzaren zerbitzuan eta menpean egongo dira, epaibidelegeek agindu ditzaten modutan.

*4garren Atala*

Ertzainaren jokabideak zintzoa, alderdikeriarik gabekoa eta duintasunezkoa izan behar du. Batez ere, saldukeriarik egin ez, eta horri ausarki aurre egin behar dio.

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

865

REGLAMENTO de la Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado en Sesión de la Junta de Seguridad de 15 de Junio de 1982.

## REGLAMENTO DE LA POLICIA DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO

### TITULO PRELIMINAR

### CODIGO DEONTOLOGICO

*Artículo 1*

Los componentes de la Policía de la Comunidad Autónoma están obligados a respetar la Constitución, el Estatuto de Autonomía, la legislación general del Estado en el ámbito de su competencia y la específica de la Comunidad Autónoma así como cumplir ejemplarmente los deberes generales de todo ciudadano.

*Artículo 2*

Los Policías tienen como misión fundamental proteger el libre ejercicio de los derechos y libertades y garantizar el orden y la seguridad ciudadana de acuerdo con el mandato constitucional y estatutario y demás normas legales y reglamentarias.

*Artículo 3*

Incumbe a todo Policía cumplir con los deberes que le impone la Ley, protegiendo a sus conciudadanos y a la colectividad contra las violencias, los ataques a la propiedad, y otros actos perjudiciales definidos por la Ley. En el desempeño de su función como policía judicial, estará de acuerdo con el artículo 36 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, al servicio y bajo la dependencia de la Administración de Justicia en los términos que dispongan las leyes procesales.

*Artículo 4*

Todo Policía debe actuar con integridad, imparcialidad y dignidad. En particular, debe abstenerse de todo acto de corrupción y oponerse a él resueltamente.

*5garren Atala*

Ertzainek, atzi edo bere zainpean euki ditzatenen biziarekiko eta gorputzarekiko arta hartu behar dute, beti ere horien izen ona eta duintasuna zainduz.

Hilduraketa eta gainontzeko beste jokabide anker eta lotsagarri guztiak erabat debekatuta gelditzen dira. Ezein hertzainek horrelako jokabidetarako ezein agindu edo manuri uko egin behar dio.

*6garren Atala*

Autonomia-Ertzaintzako kideek, aginte-mailaz bere gaineko izan ditzatenek bakoitzak bere aginte-eremuaren barruan eta legezko bideak eginda eman diezazkieten agindu eta erabakiak bete beharko dituzte. Hala ere, argi eta garbi eta erabat lege-hauspen edo legeekiko hoben izan dadin agindurik ez dute beteko.

*7garren Atala*

Aurreko Atalean agintzen denez, legez kontrako agindu bat betetzeari uko egin diezaion Hertzain bati ez zaio inolako zigorrik jarriko.

*8garren Atala*

Ezein Ertzainek, berak egin edo bere agintepekoren bati eginarazitako legez kontrako egintza edo utzikeriegatikako berenezko erantzunbeharra izango du.

*9garren Atala*

Ezein Ertzainek, lege-hauspenei aurre egin beharko die. Hauspen horiek berehalako kalte larri bat dakarketenetakoak badira, bakoitzean beharrezko izan daitezen bideak egin eta horiek eragozteko berehala eskuhartu behar du.

*10garren Atala*

Kalte larri, berehalako edo konpondu ezinezkoren bat gertatzeko arriskurik egon ez dadinean, lege-hauspen horien ondorioak edo horiek berritzea eragozteko ahalegin guztiak egingo ditu, bere agintariei jakinarazten diela. Hori egiteak behar litzatekeen ondoriorik ez balekar, dagokion Agintaritzari artez jakinarazi ahal izango dio.

*11garren Atala*

Ertzainek ezingo dute arrazagatik, erlijioagatik, sinispenegatik edo iritzi eta adierazte-eskubideaz legeen arauera baliatzeagatik inoren aurkako inolako neurririk hartu.

*12garren Atala*

Ertzain baten egintzak edo utzikeriak direla eta, horren gaineko hurrengo mailako agintedunarengana jo ahal izateko bidea egongo da beti.

*13garren Atala*

Bere egitekoa betetzen, Ertzaintzako kideek Legeak eskatzen edo horretarako baimena ematen diena egiteratzeko behar dadin kemenez ihardun behar dute, indarbidetara arrazoizkoa izan dadinean baino jo gabe.

*14garren Atala*

Bere osasun-egoera dela eta medikutzazko sorozpideak behar dituen bat bere zainpean izan dezan Ertzainak me-

*Artículo 5*

Los Policías tienen el deber de velar por la vida e integridad física de las personas a quienes detuverien o que se encontraran bajo su custodia, dejando siempre a salvo el honor y la dignidad de las mismas.

La tortura y cualquier otro tratamiento inhumano o degradante, queda prohibido en cualquier circunstancia. Todo Policía tiene el deber de no ejecutar cualquier orden o instrucción que impliquen estos actos.

*Artículo 6*

Los miembros de la Policía Autónoma deberán ejecutar las órdenes y decisiones de su superior jerárquico, dictadas, dentro de los límites de su respectiva competencia y revestidas de las formalidades legales. Sin embargo, se abstendrá de cumplir un mandato que constituya clara, manifiesta y terminantemente infracción de las leyes o constituyan delito.

*Artículo 7*

De conformidad con lo dispuesto en el artículo anterior, ninguna medida disciplinaria será adoptada contra un Policía que se haya negado a ejecutar una orden ilegal.

*Artículo 8*

Todo Policía es personalmente responsable de las acciones y omisiones ilegales que ejecute o que ordene ejecutar a su inferior jerárquico.

*Artículo 9*

Es deber de todo Policía oponerse a las violaciones de la Ley. Si estas violaciones son de tal naturaleza que entrañan un perjuicio grave e inmediato o irreparable, debe actuar sin demora para impedirlas con los medios proporcionados al caso.

*Artículo 10*

Si no hay que temer ningún perjuicio grave o inmediato o irreparable, debe esforzarse por evitar las consecuencias de estas violaciones o su repetición, poniéndolas, asimismo, en conocimiento de sus superiores. Si esta medida no produjera resultado, podrá informar de ello directamente a la Autoridad competente.

*Artículo 11*

Los Policías no podrán adoptar ninguna medida contra persona alguna por causa de su raza, religión, creencia o por el libre ejercicio de la libertad de pensamiento y expresión de acuerdo con las leyes.

*Artículo 12*

Siempre debe ser posible dirigirse al inmediato superior jerárquico por los actos u omisiones de un miembro de la Policía.

*Artículo 13*

En el ejercicio de sus funciones, los miembros de la Policía deben actuar con la decisión necesaria para llevar a cabo un cometido exigido o autorizado por la Ley, sin recurrir a la fuerza más allá de lo razonable.

*Artículo 14*

El Policía que custodie a una persona cuyo estado necesita cuidados médicos debe hacer un llamamiento al personal mé-

dikutza-alorreko lanbidedunari dei egin beharko die eta, hala behar izanez gero, bere zainpeko horren bizia eta osasuna babesteko neurriak hartu. Atzipeko batek medikutza--zaingoaren beharra duela jotzen bada, medikuen eta osasunketa-tegietako arduradunen artezpideei atxiki beharko zaie, harekiko zaingoa eta goaita bermatzeko beharrezko izan daitezen neurrien kaltetan gabe.

*15garren Atala*

Ertzain batek, jakin ditzan izkutuko arazo guztiak isilpean gorde beharko ditu, bere egitekoen egiterapenak edo Legezko manuek besterik agindu diezaiotenean salbu.

*16garren Atala*

Ertzainak beti duintasunez ihardun, eta bere egitekoari zor zaion uste ona eta itzala galtzea edo Ertzaintzaren izen ona eta eginkortasuna arriskuan jartzea lekarkeen ezein jokabideri itzuri egin beharko dio.

## LEHENENGO IDAZPURUA

## EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA-ELKARTEKO ERTZAINTZAREN ERAKUNTZA

### LEHENENGO ATALBURUA

### AUTONOMIAZKO ERTZAINTZAREN IHARDUTZE--EGITURA

*17garren Atala*

1. Autonomia-Elkarteko Ertzaintza, Eusko Jaurlaritzaren goren-agintepean, Herrizaingo-Sailaren ihardutze-egituraren barruan egongo da.

2. Honako hauek osatzen dute Autonomiazko Ertzaintza: Buruzagitza Nagusiak, beharrezko izan ditzan arduralaritzazko, ihardunerako eta eskuhartzezko laguntza-sailak dituela; Bidezaingorako Ertzain-Adalko Berezia, eta Harma eta Elkartzepide-Zerbitzuak bere menpe izango dituen Bigarren Buruzagitza; ertzaingoak eta Ikastegiak.

3. Herrizaingo-Sailburuordeak artez bere menpe izango ditu tresneriari, eskuarteei, ekurategiei eta eraikintzei buruzko guztiak.

*18garren Atala*

Autonomia-Elkarteko Ertzaintzak honako sail hauek izango ditu:

a) Herri-zaingorakoak, hirialdetarakoak edo landalurretarakoak, mugikorrak, Barruti batekoak eta Irrati-Araldeak izan daitezkeela.

b) Bidezaingorakoak.

*19garren Atala*

1. Autonomia-Elkarteko Ertzaintza, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko hiru Kondaira-Lurraldeei dagozkien hiru eskualdetan banatuko da. Eskualde bakoitzean, artez Buruzagi Nagusiaren menpe egon eta Eskualdeburu deituko zaion Buruzagi bat izango da.

2. Autonomiazko Ertzaintzaren ertzainetxeak egon daitezen hirietan toki-agintaritzak eratuko dira.

dico y, llegado el caso, tomar medidas para proteger la vida y salud de esta persona. Debe ajustarse a las instrucciones de los médicos y los responsables de los centros sanitarios si se estima que un detenido debe ser sometido a vigilancia médica, sin merma de las medidas de seguridad necesarias para garantizar su custodia y vigilancia.

*Artículo 15*

Un Policía debe guardar secreto sobre todas las cuestiones de carácter confidencial de las que tenga conocimiento, a menos que el ejercicio de sus funciones o las disposiciones de la Ley le ordenen actuar de otra manera.

*Artículo 16*

El Policía deberá dar prueba en todo momento de dignidad y evitar todo comportamiento que pueda significar pérdida de confianza y de la consideración que requieren sus funciones, o comprometer el prestigio y eficacia del Servicio de Policía.

## TITULO PRIMERO

## ORGANIZACION DE LA POLICIA DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO

### CAPITULO PRIMERO

### ESTRUCTURA ORGANICA DE LA POLICIA AUTONOMA

*Artículo 17*

1. La Policía de la Comunidad Autónoma, bajo el mando supremo del Gobierno Vasco, está encuadrada orgánicamente en el Departamento de Interior.

2. La Policía Autónoma está constituida por la Jefatura Principal que contará con los órganos de apoyo administrativos, operacionales y logísticos precisos; la Segunda Jefatura de la que dependerán la Unidad Especial de Tráfico y los Servicios de Armamento y Transmisiones; las unidades y la Academia.

3. Dependerá directamente del Viceconsejero de Interior, todo lo concerniente a material, medios, acuartelamiento y obras.

*Artículo 18*

Las unidades de la Policía de la Comunidad Autónoma serán:

a) De Guarnición, pudiendo ser urbanas o rurales, móviles, de Distrito y de radio-patrulla.

b) De Tráfico.

*Artículo 19*

1. La Policía de la Comunidad Autónoma se distribuirá en tres zonas, correspondientes a los tres Territorios Históricos de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya. Al frente de cada zona estará un Jefe, directamente subordinado al Jefe-Principal, que recibirá la denominación de Mayor.

2. Se constituirán comandancias locales en aquellas localidades en que exista guarnición de la Policía Autónoma.

*20garren Atala*

1. Autonomia-Elkarteko Ertzaintza honako ertzain-adalkotan banatuta egongo da:

Sailbatza: Bi Sailek edo gehiagok osatuko dute, eta agintedunari Sailbatza-Maister deituko zaio.

Saila: Talde batzuk osatuko dute, eta Sail-Maister bat izango du agintedun.

Taldea: Agintedunari Kapitan deituko zaio.

Taldeatala: Sarjento Nagusi baten agintepean.

Taldekia: Sarjento baten agintepean.

Multxoa: Multxozain bat buru duela.

Araldea: Kabo baten agintepean.

2. Kondaira-Lurralde baten baino gehiagotan banatutako Sailbatzarik edo Sailik ez da salbuespen gisa baizik egon ahal izango.

3. Euskal Herriko Autonomia-Estatutoaren Aldi Baterako Erabakietako Laugarrenak agintzen duenaren arauera. Talde, Sail edo Sailbatza-mailako saldotako agintariak, eta horiek baino goragokoak, Erresumako Gudarozte eta Segurantza-Sailetako Buruzagi eta Gudalagintarien artetik izendatuko dira.

*21garren Atala*

1. Taldeak hiru Taldeatal izango ditu, Taldeatal bakoitzak bi Taldeki, Taldeki bakoitzak bi Multxo, eta Multxo bakoitzak bi Aralde.

*22garren Atala*

1. Ertzain-Adalkoak esandako lurraldekako banakuntza horri atxikiz eta zerbitzuaren beharren arauera banatuko dira, eta dagokien lur-barrutietako toki-ertzaingo izango dira.

2. Ertzain-Adalkotako Buruzagiei dagokie orotariko ospakizun ofizialetan teki-agintarien aurrean haien bateango ordezkotza egitea.

3. Toki-Ertzaingoko Buruzagiak, Ertzain-Adalkoburuek bere berenezko eta berarizko egitekoetarako dituzten agintepideak aitortuko dituzte horiek, batean ari daitezenean, hari kontuak ematen dizkiotela.

4. Toki-Hertzainburuei dagokie Buruzagi-Batzordearen laguntzarekin bere barrutiko Hertzain-Adalkoen hertzaintza-zerbitzuak agintzea eta egiteratzea; horretarako Lurralde-Buruzagien, Sailbatza-Maisterren, Sail-Maisterren edo Kapitanen menpe egongo dira, noiz nola.

5. Ertzain-Adalko bereziak, bateango egintza bat egiteratzerakoan, ari daitezeneko barrutiko Buruzagiaren menpe egongo dira, artez, Buruzagi hori maila apalagokoa izan eta/edo Toki-Ertzaingoko hertzainak bertako direneko Taldeko Kapitana edo goren-agintaria bertan ez egotea gertatu dedinean salbu.

6. Autonomia-Elkarteko Ertzaintzak Epailaritza-Ertzaintza gisa ihardun dezanean Epai-Arduralaritzaren zerbitzura eta menpean egon beharko du, Auzipide-Legeek agindu dezaten eran, Autonomia-Estatutoaren 36garren Atalak dionaren arauera.

*Artículo 20*

1. La Policía de la Comunidad Autónoma está organizada en:

*Agrupaciones:* compuestas por dos o más grupos; el titular del mando recibirá la denominación de Superintendente.

*Grupo:* compuestos por varias compañías; el titular del mando recibirá la denominación de Intendente.

*Compañías:* el titular del mando recibirá la denominación de Capitán.

*Secciones:* mandadas por un Sargento Mayor.

*Pelotones:* mandados por un Sargento.

*Escuadras:* mandadas por un Inspector.

*Patrullas:* mandadas por un Cabo.

2. Sólo excepcionalmente podrán existir agrupaciones o grupos cuyos efectivos estén distribuidos por más de un Territorio Histórico.

3. De acuerdo con lo dispuesto en la Disposición transitoria cuarta del Estatuto de Autonomía del País Vasco, los mandos de las unidades tipo Compañía, Grupo o Agrupación, así como los Superiores de éstos, se designarán entre Jefes y Oficiales de las Fuerzas Armadas y de los Cuerpos de Seguridad del Estado.

*Artículo 21*

1. La Compañía estará dividida en tres secciones; cada sección en dos pelotones; cada pelotón en dos escuadras; cada escuadra en dos patrullas.

*Artículo 22*

1. Las unidades se distribuirán de acuerdo con la división territorial citada y según las necesidades del servicio y constituirán la guarnición de la demarcación territorial de que se trate.

2. A los Jefes de las Unidades corresponde ostentar su representación corporativa ante las autoridades de la localidad en todos los actos oficiales de carácter general.

3. El Jefe de la Guarnición respetará las atribuciones de los Jefes de las Unidades en la ejecución de sus cometidos propios y específicos, de los que aquéllos le darán cuenta cuando actúen conjuntamente.

4. A los Jefes de la Guarnición, asistidos de la Plana Mayor, les corresponde ordenar y ejecutar los servicios policiales propios de las Unidades de su demarcación a cuyo efecto dependerán del Jefe Territorial, Superintendente, Intendente o Capitán, según los casos.

5. Las distintas Unidades dependerán inmediatamente en el ejercicio de una acción conjunta del Jefe de la demarcación en que actúen, salvo que éste sea de inferior empleo, y/o no estuviera presente el Capitán de la Compañía o mando superior en que está encuadrada la dotación policial de la Guarnición.

6. Cuando la Policía de la Comunidad Autónoma actúe como Policía Judicial, estará al servicio y bajo la dependencia de la Administración de Justicia en los términos que dispongan las Leyes Procesales, conforme al artículo 36 del Estatuto de Autonomía.

*23garren Atala*

Arduralaritza-arazotarako, ertzain-adalkoak Herri-segurantza-Artezkaritzako Idazkari Nagusiaren menpe egongo dira, jarri daitezen neurri eta modutan.

*24garren Atala*

Ertzain-Adalkoek, bere nolakoa eta bertako kideen egoera eta berarizkotasuna direnak direla, Autonomia-Elkarteko Segurantza-Saileko direnez Ertzaintzari eta ertzainei dagozkien egiteko eta orotariko ihardunari erantzuteko behar dadin gaitasuna izango dute.

Hala ere, eta bere berarizkotasunaren arauera, Autonomia-Elkarteko Ertzaintzari berenez dagokion egitekoren bati edo egiteko batzuei bereziki erantzun ahal izateko beharrezko izan daitezen berariz gaitutakoak sartuko ditu bere erakuntzan, gaikuntzan, eskuartetan eta ihardutze-egituran.

## BIGARREN ATALBURUA

### BURUZAGI NAGUSI, BIGARREN BURUZAGI, LURRALDE-BURUZAGI ETA TOKI-ERTZAINGOTAKO BURUZAGIEZ

### LEHENENGO SAILA.—BURUZAGI NAGUSIAZ

*25garren Atala*

Ertzaintzako Buruzagi Nagusia Eusko Jaurlaritzak izendatuko du Dekretoz, Errizaingo-Sailburuaren saloz, Euskal Herriko Autonomia-Estatutoaren Aldibaterako Erabakietako Laugarrenak eta horri datxezkion manuek esaten dituztenen artetik.

*26garren Atala*

Honako agintepide hauek dagozkio, Herrisegurantza-Artezkariarekiko artezko menpetasunez, Buruzagi Nagusiari:

Lehenengoa.—Herri-bakeari eta segurantzari buruzkoetan Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Ertzaintzaren agintaritza, eta Epailaritza-Ertzaintza gisakoetan Epailari eta Epaitegiekin beharrezko izan daitezen harremanak izatea, Euskal Herriko Autonomia-Estatutoaren 26garren Atalak dioenaren arauera.

Bigarrena.—Ertzainen gaikuntzari eta araukoitasunari eta tresneria-gaien egoerari buruzko ikuskaketa, zerbitzuen egiterapenari buruzkoa eta, orohar, Autonomiazko Ertzaintzari buruzko guztiekikoaa, bere agintepeko izan dedinean somatutako akatsak zuzenduz edo, bestelakotan, Herrisegurantza-Artezkariari egoki eritzitako saloa eginaz.

Hirugarrena.—Ertzainak izendatzea eta lehen-hertzainerako, Kabotarako, Lehen-Kabotarako, Sarjentotarako eta Sarjento Nagusitarako agizko mailaz jasotzeak erabakitzea.

Laugarrena.—Herrizaingo-Sailburuari Herrisegurantza-Artezkariaren bidez Autonomiazko Ertzaintzako agintarien artetik Sail-Maisterra eta Sailbatza-Maisterra izendatzeko saloak egitea.

Bosgarrena.—Arau-bidez zehaztu daitezen modutan sariak ematea.

Seigarrena.—Lan-izendapenak egitea, eta Ertzaintzako kideentzako utzialdiak eta baimenak behin-behingozko zioegatik nahiz agizkoegatik kentzea.

*Artículo 23*

A efectos administrativos, las unidades dependerán de la Secretaría General de la Dirección de Seguridad Ciudadana, en los términos y forma que se establezca.

*Artículo 24*

Las Unidades poseerán las condiciones precisas para atender, cualquiera que sea su carácter o la especialidad y situación de sus componentes, a todas las misiones y cometidos genéricos que como Cuerpo de Seguridad de la Comunidad Autónoma le corresponda a éste y a sus miembros.

No obstante y conforme a su especialidad, introducirán en su organización, instrucción, medios y estructura funcional, las peculiaridades precisas en orden a su adaptación, de forma preferente a uno o varios de los cometidos propios de la Policía de la Comunidad Autónoma.

## CAPITULO SEGUNDO

### DEL JEFE PRINCIPAL, SEGUNDO JEFE, JEFES TERRITORIALES Y JEFES DE COMANDANCIA LOCAL

### SECCION PRIMERA.—DEL JEFE PRINCIPAL

*Artículo 25*

El Jefe Principal de la Policía será nombrado mediante Decreto del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Interior, entre aquellos a los que se refiere la disposición transitoria cuarta del Estatuto de Autonomía del País Vasco y disposiciones concordantes.

*Artículo 26*

Corresponden al Jefe Principal, bajo la dependecia inmediata del Director de Seguridad Ciudadana, las siguientes atribuciones:

Primera.—Ejercer el mando de la Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en lo que respecta al orden y la seguridad ciudadana y mantener las necesarias relaciones con los Jueces y Tribunales en las funciones de Policía Judicial, conforme al artículo 36 del Estatuto de Autonomía del País Vasco.

Segunda.—Inspeccionar el estado de la instrucción y disciplina del personal y el de conservación del material, la ejecución de los servicios y, en general, todo lo concerniente al Cuerpo de la Policía Autónoma, remediando cuantas deficiencias observe, si está dentro de sus atribuciones o, en caso contrario, proponiendo lo que considere adecuado al Director de Seguridad Ciudadana.

Tercera.—Acordar el nombramiento de los Policías y los ascensos ordinarios a Policía de primera, Cabo, Cabo primero, Sargento y Sargento Mayor.

Cuarta.—Proponer al Consejero de Interior, a través del Director de Seguridad Ciudadana, los nombramientos de Intendente y Superintendente de entre los mandos de la Policía Autónoma.

Quinta.—Conceder las recompensas, en los términos que reglamentariamente se establezcan.

Sexta.—Acordar los destinos y la supresión por causas extraordinarias y con carácter general de licencias y permisos al personal del Cuerpo.

Zazpigarrena.—Autonomiazko Ertzaintzako kideen heuren edo familien beharrei hobeki erantzuteko osatze-bidezko ezein gizarte edo sorozpidetza-alorreko ekintzapidekiko arta eta ikuskaketa.

Zortzigarrena.—Araudi honek berariz izendatu diezaizkion zehaztapidetzak erabakitzea.

Bederatzigarrena.—Beste manu batzuk berari izendatu edo Herriseguruntza-Artezkariak hoietarako eskua emandakoak.

*27garren Atala*

Hori aginte-eremuz dagokionean eta Herrizaingo -Sailburuari eta Sailburuordeari eta Herriseguruntza-Artezkariari dagozkien eskubideen kaltetan gabe, Buruzagi Nagusiak Araudi honek ematen dizkion ahalmen guztiak izango ditu Autonomia-Ertzaintzako kide guztiekiko, hala behar izanez gero bere arioz edo Lurralde-Buruzagien saloz bere ezein agintepekori bere agintea utziaraztea barne.

## BIGARREN SAILA.—BIGARREN BURUZAGIAZ

*28garren Atala*

Autonomia-Ertzaintzako Bigarren Buruzagia Eusko Jaurlaritzak, Herrizaingo-Sailburuaren saloz emandako Dekretoz izendatuko du, Autonomia-Estatutoaren Aldibaterako Erabakietako Laugarrenak eta horri datxezkion manuek esandakoen artetik.

*29garren Atala*

Honako agintepide hauek izango ditu Bigarren Buruzagiak:

Lehenengoa.—Autonomia-Hertzaintzako Buruzagi Nagusirik ez egotea, kanpoan edo gaisorik gertatzea eta edozergatik bere egitekoak behar bezala betetzeko ezina gertatuz gero, haren ordezko agintaritza.

Bigarrena.—Bidezaingoko Berarizko Adalkoko edo eratu dadin beste edozeinetako eta Elkartzepide eta Harma-Zerbitzuetako arteztc-agintaritza.

## HIRUGARREN SAILA.—BURUZAGI NAGUSIARI LAGUNTZEKO IHARDUTZE-SAILAK

*30garren Atala*

Buruzagi Nagusiaren laguntzarako Ihardutze-Sailak, haren artezko agintepean, hari argipide egokiak ematea, erabakiak har ditzaneko aholkuak eman eta gai zehaztei buruz beharrezko izan daitezenak biltzea, horiei bere bideak eginaraztea eta zehazki bete daitezenaz arduratzea izango ditu bere orotariko egiteko.

*31garren Atala*

1. Buruzagi Nagusiaren artezko agintepean, Bigarren Buruzagiak, Lurralde-Buruzagiek, Sailbatza-Maisterrak eta Sailburuaren elkartzepidetarako Aholkulariak osatutako Aholkularitza-Batzorde bat egongo da.

2. Buruzagi Nagusiak hilean behin gutxienez bilkurarako deia egingo dio Batzordeari. Bilkura horretara, gai-zerrendako gaiak direla eta Buruzagi Nagusiak beharrezko eritzitako aholkulari eta agintariek joan ahal izango dute.

Séptima.—Vigilar y fiscalizar cualquier actividad social o asistencial complementaria dirigida a la mejor satisfacción de las necesidades personales y familiares de los componentes de la Policía Autónoma.

Octava.—Resolver los expedientes de asuntos que expresamente le atribuya este Reglamento.

Novena.—Las que le atribuyan otras disposiciones o le delegue el Director de Seguridad Ciudadana.

*Artículo 27*

Sin perjuicio de la potestad jurisdiccional competente y de las facultades que competen al Consejero y Viceconsejero de Interior y al Director de Seguridad Ciudadana, el Jefe Principal ejercerá sobre el personal del Cuerpo de la Policía Autónoma las atribuciones conferidas por el presente Reglamento, incluida la de suspender el mando de cualquiera de sus subordinados en caso necesario, ya a propia iniciativa o a propuesta de los Jefes Territoriales.

## SECCION SEGUNDA.—DEL SEGUNDO JEFE

*Artículo 28*

El Segundo Jefe de la Policía Autónoma será nombrado mediante Decreto del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Interior, de entre aquellos a que se refiere la transitoria cuarta del Estatuto de Autonomía y disposiciones concordantes.

*Artículo 29*

El Segundo Jefe tendrá las siguientes atribuciones:

Primera.—Sustituir en el mando de la Policía Autónoma al Jefe Principal, en los casos de vacante, ausencia o enfermedad y en aquellos casos en que, por cualquier causa exista imposibilidad del ejercicio normal de sus funciones.

Segunda.—Ejercer el mando director de la Unidad Especial de Tráfico o de cualquier otra que se forme, así como de los servicios de Transmisiones y Armamento.

## SECCION TERCERA.—ORGANOS DE APOYO DEL JEFE PRINCIPAL

*Artículo 30*

Los Organos de apoyo del Jefe Principal, bajo sus inmediatas órdenes, tendrán los cometidos generales de procurarle la información adecuada, asesorar sus decisiones y adoptar las de detalle que fueran precisas, transmitirlas y velar por su exacto cumplimiento.

*Artículo 31*

1. Directamente subordinada al Jefe Principal existirá una Junta asesora del mismo formada por el Segundo Jefe, los Jefes Territoriales, los Superintendentes y el Asesor del Consejero para transmisiones.

2. La Junta será convocada por el Jefe Principal, al menos, una vez al mes. A la misma podrán concurrir los asesores y mandos que el Jefe Principal entienda necesario por razón de los temas a tratar en el orden del día.

*32garren Atala*

Honako Sail hauek izango ditu, egituraz, Idazkaritza Nagusiak:

— Ekintzapide-Saila.

— Arduralaritza-Saila.

*33garren Atala*

Honako arazo hauei bere bideak eginaraztea izango du bere egitekoa Ekintzapide-Sailak:

— Autonomia-Ertzaintza osoaren eta Ertzain-Adalko berezien erakuntza eta egitura.

— Ertzain-Adalkoez baliatzeko erak, eta zerbitzuak egiteko arauen zehaztapena.

— Eremuz Autonomia-Elkarte osoari dagozkion eta duten garrantzia dela eta Buruzagi Nagusiaren arduraрeko izan daitezkeen zerbitzuen egitamuketa eta horien egiterapenaren artezkaritza.

— Ertzaintzaren berenezko egitekoei dagozkien argipide guztiak biltzea, horien balioa haztatzea, eta zabaltzea.

— Isilpeko Idazkera-Zerbitzuaren iharduna, antolaketa eta artezkaritza.

— Ertzain-Adalkoen urteroko txostenak, ekintza-egunkariak eta kondairak.

— Buruzagi Nagusiak eman ditzan artezpide eta oro-idazkien saloak egitea, eta horiek idaztea.

*34garren Atala*

Arduralaritza-Sailak, izendatu zaizkion eta aurreko Atalean esan diren egiteko guztietan eta besteak beste honako hauetan Buruzagi Nagusiari eta Bigarren Buruzagiari teknikazko eta idazgu-lanezko laguntza ematea izango du bere egitekoa:

— Ertzaintzako Orotariko Agindua gertatzea eta ezagutaraztea.

— Toki-izendapenei bere bideak eginaraztea, eta Herri-Agintariekingo, Ertzain-Adalkoekingo eta hoietako agintariekingo harremanak.

— Ertzainen jokabideei eta gaitasunari buruzko argipideak.

— Horniketa-beharrekiko aholkularitza.

— Egindako zerbitzuen estadistikak.

— Harmen eta Elkartzepide-Apailuen erroldea.

— Bigarren Buruzagiaren agintepeko ertzain-adalkoen eta zerbitzuen janariak, jantziak, lanabesak, tresneria eta ekurategi-erredizak Biltegian eukitzeari eta segurtatzeari buruzko guztien arartekotza.

— Lehentasun-arauak eta ohoreak.

## LAUGARREN SAILA.—LURRALDE-BURUZAGIEZ

*35garren Atala*

1. Lurralde-Buruzagiak, Araudi honetako 19garren Atalak dion tokizko aginte-eremua dutela, Buruzagi Nagusiaren artezko menpeko izango dira, eta horrek emango dizkie bere egitekoak bete ditzateneko aginduak eta artezpideak.

2. Eusko Jaurlaritzak izendatuko ditu, Dekretoz eta Herrizaingo-Sailburuaren saloz, Autonomia-Estatutoko Aldi-

*Artículo 32*

La Secretaría General queda estructurada en las siguientes Secciones:

— Operaciones.

— Administrativa.

*Artículo 33*

La Sección de Operaciones tendrá como función el trámite de los siguientes asuntos:

— Organización y estructura general de la Policía Autónoma y particular de las Unidades.

— Definición de los procedimientos de empleo de las Unidades y de las normas de ejecución de los servicios.

— Planificar y dirigir la ejecución de los servicios cuyo ámbito afecte a toda la Comunidad Autónoma y aquellos otros que por su importancia pudieran corresponder a la Jefatura Principal.

— Adquisición, evaluación y difusión de cuanta información afecte a las misiones propias del Cuerpo.

— Funcionamiento, organización y dirección del Servicio de CIFRA.

— Memorias anuales, diario de operaciones e historial de las Unidades.

— Proponer y redactar las instrucciones y circulares que dirija el Jefe Principal.

*Artículo 34*

La Sección Administrativa tendrá como función la de apoyo técnico y burocrático al Jefe Principal y al Segundo Jefe en todas las funciones a ellos atribuidas y no recogidas en el artículo anterior y, entre otras:

— Confección y publicación de la Orden General del Cuerpo.

— Tramitar los destinos y la comunicación con las Autoridades civiles, las Unidades y sus mandos.

— Información sobre conducta y aptitudes del personal del Cuerpo.

— Asesorar sobre las necesidades logísticas.

— Llevar la estadística de los servicios realizados.

— Inventario de Armamento y Transmisiones.

— Gestión de cuanto concierne al Almacenamiento y distribución de subsistencias, vestuario, equipo, material y utensilios de acuartelamiento de las unidades y servicios dependientes del Segundo Jefe.

— Protocolo y honores.

## SECCION CUARTA.—DE LOS JEFES TERRITORIALES

*Artículo 35*

1. Los Jefes Territoriales, con la competencia territorial señalada en el artículo 19 de este Reglamento, dependerán directamente del Jefe Principal de quien recibirán las órdenes e instrucciones para el desempeño de sus funciones.

2. Serán nombrados por Decreto del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Interior, de entre aquellos a que

baterako Erabakietako Laugarrenak eta hori datxezkion manuek esaten dituenen artetik.

*36garren Atala*

Lurralde-Buruzagiek bere barrutian dautzan ertzain-adalkoak Buruzagi Nagusiak agindu diezaienetan, egoki eritzitakoan eta urtean birritan gutxienez ikuskatu beharko dituzte.

Ikuskaketa horietan ertzain-adalko horien zerbitzuari, gaikuntzari, araukoitasunari, harmei eta baliapideei buruzko alderdi guztiak ikuskatu eta, bere agintepideen barruan, somatu ditzaten akatsak kentzeko eta onbideratzeko egoki eritzitako neurriak hartuko dituzte.

*37garren Atala*

Lurralde-Buruzagiek bere gain hartuko dute bere lurralde-eremua edo duten garrantzia dela eta Herrizaingo -Sailburuak Buruzagi Nagusiaren saloz berariz izendatu diezazkien zerbitzuen egiterapena.

Halaber, Buruzagi Nagusiaren esku-ematez izendatu dakizkien egitekoak ere egiteratuko dituzte.

**BOSGARREN SAILA.—TOKI-ERTZAINGOTAKO BURUZAGIEZ**

*38garren Atala*

1. Buruzagitza hori Toki-Ertzaingoko Ertzain-Adalkoko Buruzagiak izango du.

2. Araukoitasunari, gizakiei, gaikuntzari eta lanbideen arauerako harma eta tresnerei buruzko guztiak izango ditu bere gain.

**HIRUGARREN ATALBURUA**

**HARMA ETA GAI-BATZORDEAZ ETA ERTZAINETXE ETA LAN-BATZORDEAZ**

*39garren Atala*

Herrizaingo-Sailburuordearen menpeko bi Aholkularitza -Batzorde izango dira, Harma eta Gai-Batzordea eta Ertzainetxe eta Lan-Batzordea.

*40garren Atala*

1. Batzordeok Herrizaingo-Sailburuordea izango dute Batzordeburu, Herriseguranta-Artezkaria, Buruzagi Nagusia, Herriseguranta-Artezkaritzako Idazkari Nagusia, Sailburuaren Elkartzepide-sarearen antolapenerako Aholkularia, Buruzagi Nagusiordea eta Lurralde-Buruzagiak kide direla. Herriseseguranta-Artezkaritzako arkitekto bat ere izango da Ertzainetxe eta Lan-Batzordeko kide.

2. Batzordeek Arduralaritzabide-Legean ohartemandakoak izango dituzte jaurpide.

3. Batzordeak, arauz, sei hilabetez behin bilduko dira gutxienez eta, nolanahi ere, Diruegitamuak gertatu bainò lehen.

*41garren Atala*

Autonomia-Elkarteko Ertzaintzari izendatutako egitekoak betetzeko beharrezko izan daitezen harmak, balak, leher-

se refiere la disposición transitoria cuarta del Estatuto de Autonomía y disposiciones concordantes.

*Artículo 36*

Los Jefes Territoriales deberán inspeccionar las unidades ubicadas en su demarcación cuando se lo ordene el Jefe Principal, cuando lo consideren oportuno y, por lo menos, dos veces al año.

En dichas inspecciones examinarán cuanto tenga relación con el servicio, instrucción, disciplina, armamento y material de aquellas Unidades, y adoptarán las medidas que, dentro de sus facultades, estimen oportunas para que sean remediadas y corregidas las deficiencias que observen, dando cuenta al Jefe Principal.

*Artículo 37*

Los Jefes Territoriales asumirán la ejecución de los servicios que por su extensión territorial o importancia le sean atribuidos expresamente por el Consejero de Interior a propuesta del Jefe Principal.

Igualmente, desempeñará aquellas funciones que le sean atribuidas por delegación del Jefe Principal.

**SECCION QUINTA.—DE LOS JEFES DE COMANDANCIA LOCAL**

*Artículo 38*

1. Recaerá esta Jefatura en el Jefe de la Unidad de guarnición en la misma.

2. Le corresponderá lo relativo a la disciplina, personal, instrucción, armamento y material de conformidad con su empleo.

**CAPITULO TERCERO**

**DE LAS JUNTAS DE ARMAMENTO Y MATERIAL Y ACUARTELAMIENTOS Y OBRAS**

*Artículo 39*

Bajo la dependencia del Viceconsejero de Interior existirán dos Juntas Asesoras: de Armamento y material y de Acuartelamientos y obras.

*Artículo 40*

1. Las Juntas serán presididas por el Viceconsejero de Interior y formarán parte de las mismas el Director de Seguridad Ciudadana, el Jefe Principal, el Secretario General de la Dirección de Seguridad Ciudadana, el Asesor del Consejero para el establecimiento de la Red de Transmisiones, el Subjefe Principal y los Jefes Territoriales. Formará parte también de la Junta de Acuartelamientos y Obras un arquitecto de la Dirección de Seguridad Ciudadana.

2. Las Juntas se regirán por lo previsto en la Ley de Procedimiento Administrativo.

3. Las Juntas se reunirán preceptivamente una vez, al menos, cada seis meses y, en todo caso, antes de la confección del Presupuesto.

*Artículo 41*

Es función de la Junta de Armamentto y Material asesorar sobre la elección y adquisición de armas, municiones, explo-

kaiak, tresnak eta gainontzeko gai mugikorrak edo horien kidekoak aukeratzeari eta erosteari buruzko aholkuak ematea du Harma eta Gai-Batzordeak bere egitekoa.

Berariz, Batzordeari bere iritzia eskatu beharko zaio, aurrez, tresneria erosteko lehiaketetarako baldintza-zerrenda gertatzeko eta lehiaketok erabakitzeko, eta baita indarreango legepideen arauera artezko akurapena egingarri izan dadinetan ere.

*42garren Atala*

Honako hauek ditu bere egitekoak Ertzainetxe eta Lan-Batzordeak:

a) Gudaletxeak eta tokiko hertzainetxeak jartzeko tokirik onenei buruzko aholkuak ematea.

b) Eraikintzei bere onean ahalik eta ondoen eusteko eta hoiek hornitzeko artezpide egokien saloak egitea.

## LAUGARREN ATALBURUA

## EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA-ELKARTEKO ERTZAINTZAREN BERARIZKO IKASTEGIAZ

*43garren Atala*

Berarizko Ikastegiari Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Ertzaintzarekiko hezkuntza, irakaskuntza, hobekuntza eta gaikuntza dagozkio.

Ikastegiko Artezkaria, Herrizaingo-Sailburuak Herrizaingo-Sailburuordearen saloz emandako Aginduz izendatuko da.

*44garren Atala*

1. Ikastegiko Artezkariak, bere Artezkaritza-lanean, Ikastegiko Batzordearen laguntza izango du.

2. Honako hauek osatuko dute Ikastegiko Batzordea, bertako Artezkariaren lehendakaritzapean: Ikastegiko Artezkariordeak, egon baldin badago, Irakaskuntza-Saileko Sailatal berezietako arduradunek, eta Ikasketa eta Sikoteknia-Saiaketategiko eta Berarizko Ikastaroen Sailataleko arduradunek, eta bai Tiroketategikoak ere.

*45garren Atala*

Honako hauek dagozkio Ikastegiko Batzordeari:

a) Bai orotariko hezkuntzako bai berarizko Ikastarotarako ikasketa-egitamuak egitea.

b) Ikasketa-Egitamuak ontzat ematea.

c) Ikastegiko Artezkariak iritzi-eske aurrera ekarri diezaizkion arazo guztien azterpena.

*46garren Atala*

1. Ikastegiko Artezkaritzari artez atxikita, honako hauek egongo dira:

A) Sailatalka banatutako Irakaskuntza-Saila.

B) Ikerketaren eta Sikoteknia-Saiaketategiaren Saila.

C) Tiroketa-Irakastegia.

D) Berarizko Ikastaroen Saila.

2. Etengabeango Gaikuntza-Sail bat ere izango da, Irakaskuntza-Sailarekiko eta Sikoteknia-Saiaketategiaren Sailarekiko bateango menpekotasunez.

sivos, artificios y demás material móvil o similar necesario para el cumplimiento de las misiones encomendadas al Cuerpo de la Policía Autónoma.

En particular, la Junta deberá ser consultada preceptivamente en la elaboración de los pliegos de concursos para la adquisición de material y en la resolución de los mismos, así como en los casos en que, de conformidad con la legislación vigente, quepa contratación directa.

*Artículo 42*

Son funciones de la Junta de Acuartelamiento y Obras:

a) Asesorar sobre el mejor emplazamiento de los cuarteles y comisarías locales.

b) Proponer las instrucciones pertinentes para la mejor conservación y entretenimiento de los inmuebles.

## CAPITULO CUARTO

## DE LA ACADEMIA ESPECIAL DE LA POLICIA DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO

*Artículo 43*

A la Academia Especial corresponderá lo relativo a la formación, enseñanza, perfeccionamiento y capacitación del personal de la Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El director de la Academia será nombrado mediante Orden del Consejero de Interior, a propuesta del Viceconsejero de Interior.

*Artículo 44*

1. El Director de la Academia estará asistido en la Dirección de la Academia por la Junta de la misma.

2. Formarán parte de la Junta de la Academia bajo la presidencia de su Director: el Subdirector de la Academia, si lo hubiera, los responsables de los distintos Departamentos de la Sección de Enseñanzas y los responsables de las Secciones de Investigación y Laboratorio Psicotécnico y Cursos especiales, así como del Centro de Tiro.

*Artículo 45*

Corresponde a la Junta de la Academia:

a) Programar los cursos, tanto de formación general como especiales.

b) Aprobar los Planes de estudios.

c) El estudio de todas las cuestiones que le someta a consideración el Director de la Academia.

*Artículo 46*

1. Adscritas directamente a la dirección de la Academia existirán:

A) La Sección de Enseñanza, dividida en Departamentos.

B) La Sección de Investigación y Laboratorio Psicotécnico.

C) El Centro de Instrucción de Tiro.

D) La Sección de Cursos Especiales.

2. Dependiendo conjuntamente de la Sección de Enseñanzas y de la de Investigación y Laboratorio Psicotécnico, existirá una Sección de Formación Permanente.

*47garren Atala*

Eskola hoietarako izendatutako lanariak, horretzaz kanpoko zerbituz guztietatik iare egongo dira, eta hoien lanbide -iharduna ezingo da Herrisegurantza-Artezkariak berariz agindu gabeko ekintzapide do zerbitzuegatik inola ere aldatu, Epailaritza-zerbitzuek edo Ikastegiko berenezko zerbitzuekiko gertakariek lehentasuna izan dezaten egoeretan salbu.

*48garren Atala*

Ertzain-Ikastegian lanean diharduten lanariek ezingo dute bertan sartu-nahikoak gertatzen ari, ez horri nolabait datxekiokeen beste ezein irakaskuntzatan ere.

*49garren Atala*

Ikastegiak Araudi hau, Zerbitzu-Araudia eta bere Araudi berezia izango ditu jaurpide.

*50garren Atala*

Irakaskuntza-Sailak honako egiteko hauek izango ditu:

a) Eskola-ikastaroei eta orotariko irakaskuntzarako Ikasketa-Egitamuei buruzkoen ikerketa, azterpena eta salogintza.

b) Urteko Txostena egitea.

*51garren Atala*

Ikerketaren eta Sikoteknia-Saiaketategiaren Sailak honako hauek izango ditu bere egiteko:

a) Beharrezko edo Autonomia-Elkarteko Ertzainarekin erabilgarri eritzitako ihardutze-modu eta bide guztiekiko ikerketa, saioak eta saloak.

b) Bertako arauzko ikastarorako Ertzain-Ihardunbideen Araudia gertatzea.

c) Hertzainekiko sikolojia-eraginerako bideak antolatzea.

d) Ikastegian sartzeko sikoteknia-testak eta Ertzainen sikolojiazko jarrerekiko jarraipena egitekoak gertatzea.

e) Herritarren iritziekiko ikerketa-ekintzaldiak egiteratzea.

*52garren Atala*

Honako hauek izango dira Tiroketa-Irakastegiaren egitekoak:

a) Ertzain-tiroketaren teknikabideak eta moetak aztertzea eta egiteratzea, eta baita harma, bala eta tiroketa-tresneria lagungarriez baliatzeko Harma-Zerbitzuko Buruzagitzaren laguntzaile izatea ere.

b) Berarizko gai horri buruzko Gaikuntza-Ikastarotarako ikasgai-egitamua egin, eta ikastaro hoiek ematea.

*53garren Atala*

Berarizko Ikastaroen Sailak, aurreko beste hiruekin elkar hartuta, honako egiteko hauek izango ditu:

a) Hertzain-Teknikabideetango aituak gertatzea.

b) Gaitasun eta gaikuntza-saioak gertatzea eta egitea, eta Kabotara, Multxozainetara, Sargentotara eta Sarjento Nagusitara iristeko eskatu beharreko ikastaroen egiterapena.

*Artículo 47*

El personal destinado a estas Escuelas estará exento de todo servicio ajeno a las mismas, sin que sus actividades profesionales puedan ser alteradas bajo ningún concepto por actos o servicios que no sean expresamente ordenados por el Director de Seguridad Ciudadana, excepción hecha de los servicios de Justicia o situaciones en las que sea preferente su atención sobre los servicios propios del Centro docente.

*Artículo 48*

El personal destinado en la Academia de la Policía no podrá dedicarse a la preparación para ingreso en la misma, ni a ninguna otra enseñanza que tenga conexión con ella.

*Artículo 49*

La Academia se regirá por las disposiciones de este Reglamento, el de servicios y por sus propios Reglamentos.

*Artículo 50*

La Sección de Enseñanzas tendrá como funciones:

a) Investigar, estudiar y proponer lo relativo a los Cursos escolares y Planes de estudio de enseñanza general.

b) Confeccionar la Memoria Anual.

*Artículo 51*

La Sección de Investigación y Laboratorio Psicotécnico tendrá como funciones:

a) Investigar, experimentar y proponer cuatos medios y procedimientos de actuación se consideren precisos o de aplicación a la Policía de la Comunidad Autónoma.

b) Confeccionar los Reglamentos Táctico-Policiales para su curso reglamentario.

c) Elaboración de los medios de acción psicológica de las fuerzas.

d) Elaboración de los test psicotécnicos de ingreso en la Academia y seguimiento de la actitud psicológica de las Fuerzas.

e) Realización de sondeos de Opinión entre la población.

*Artículo 52*

El Centro de Instrucción de Tiro tendrá como funciones:

a) El estudio y desarrollo de las técnicas y modalidades del tiro policial, así como colaborar con la Jefatura del Servicio de Armamento en la adopción de nuevas armas, municiones y material auxiliar de tiro.

b) Programar e impartir cursos de Instrucción relacionados con esta especialidad.

*Artículo 53*

La Sección de cursos especiales, en coordinación con las tres secciones anteriores, tendrá como funciones:

a) La formación de especialistas en técnicas policiales.

b) La preparación y desarrollo de las pruebas de aptitud y capacitación y la realización de los cursos exigibles para el ascenso a los empleos de Cabo, Inspector, Sargento y Sargento Mayor.

## BOSGARREN ATALBURUA

## ERTZAIN-ADALKOEZ

### LEHENENGO SAILA.—TOKI-ERTZAINGOKO ERTZAIN-ADALKOEZ

*54garren Atala*

Ertzain-Adalkoak Mugikorrak, Barrutikoak edo Irrati-Araldeak izan daitezke.

*55garren Atala*

Ertzain-Adalko Mugikorrek, ertzainak herri-bakea arriskuan egon dadin tokitara berehala biltzeko behar daitezen baliapideak izango dituzte, aurrea hartzeko eta egoera bereoneratzeko.

*56garren Atala*

Barrutietako Ertzain-Adalkoak osatze-modu berezietakoak izan daitezke, bertan dautzaneko hirien ertzaingo-beharrei dagozkienak eta, agitz, norbanakoen nahiz herri-jabetzapeko ogasunak babesteko eta zaintzeko toki bereango zerbitzuak egingo dituzte, eta bai Epai-Arduralaritzak izendatu diezazkienak ere.

Banakako eta bakarreango eskuhartzetarako ikasitakoz osatuta egon, eta irrati-araldeekin eta hiriko Ertzaintzaren Iharduntze-Arteztegiarekin etengabeko harremanean egongo dira.

*57garren Atala*

Irrati-Araldetako Ertzain-Adalkoek, osatze-modu berezitakoak izan, ibilgailu zailu eta azkarrez hornituta egon, eta hiriguneetan eta landalurretan norbanakoen eta ogasunen segurantzarekiko arta izango dute bere lehen-egitekoa, eta bai liskarrik, istripurik, hondamenik edo ezbeharrik gertatuz gero laguntza ematea ere.

Hiriko Ertzaintzaren Iharduntze-Arteztegiarekin etangabeko harremanean ihardungo dute.

### BIGARREN SAILA.—BIDEZAINGORAKO BERARIZKO ERTZAIN-ADALKOEZ

*58garren Atala*

Bidezaingo-Adalkoak herri-bideetatikako goaia, ibilgailu eta garraioekiko arta ditu bere berarizko egitekoak.

*59garren Atala*

Iharduntze-egiturari eta araupideei dagozkienetarako Bidezaingo-Saileko ertzainak Autonomia-Elkarteko Ertzaintzakoak izan eta Bigarren Buruzagiaren menpe egongo dira, bere berenezko agintarien bitartez.

Herrisegurantza-Artezkariak, edo hala egokituz gero Artezkaritza horretako Bidezaingo-Saileko Buruzagiak emango edo bideratuko ditu Zerbitzugintzarako aginduak Ertzain-Adalkoko Buruzagiaren bitartez edo, presakotan, doakien ertzain-adalkoei artez. Agindu eta artezpideak orokorrak izan daitezenean, Herrisegurantza-Artezkariak Autonomia-Elkarteko Ertzaintzako Bigarren Buruzagiari emango dizkio.

*60garren Atala*

Bidezaingo-Adalkoan sartzeko, berarizko ikastaro bat gainditzea eta bertan tokia hutsik egotea beharrezkoak izango dira.

## CAPITULO QUINTO

## DE LAS UNIDADES

### SECCION PRIMERA.—DE LAS UNIDADES DE GUARNICION

*Artículo 54*

Podrán ser Móviles, de Distrito y de Radio-Patrulla.

*Artículo 55*

Las Unidades Móviles estarán dotadas de los medios precisos para la concentración rápida de efectivos policiales en aquellos lugares en que el orden público se vea amenazado, para prevenirlo o restaurarlo.

*Artículo 56*

Las Unidades de Distrito serán de composición variable, adaptadas a las necesidades policiales de las localidades donde radiquen y normalmente prestarán los servicios estáticos de protección o custodia a personas y bienes privados y públicos, así como las que les encomiende la Administración de Justicia.

